

BATZORDE BEREZI BATEK AZTERTUKO DITU LEHENDAKARIA KARGUTIK KENTZEKO AKUSAZIOAK

Dumak bidea egin dio Jeltsin kargutik kentzeko prozesuari

■ Errusiako Diputatuen Ganbarak, Dumak, bidea egin du Boris Jeltsin lehendakaritza kargutik botatzeko prozesua hasteko. Horrez gainera, Nazioarteko Moneta Fondoari ohartarazi dio Errusiak ez duela erantzungo kreditu osagarriengatik.

Agentziak / Mosku

DUMAK erabateko gehiengoarekin onetsi zuen atzo Boris Jeltsin lehendakaritza kargutik kentzeko komunistek eta horien aliatuek aurkeztutako prozesuari bidea egitea. Legebiltzarreko 331 diputatuk baietza eman zioten Batzorde Berezia bat eratzeari, prozesuaren legezkotasuna kontrolatu eta Jeltsinen akusazioak egiaztatzeko. Bost diputatuk besterik ez zuten aurkako botoa eman. Batzorde Berezia osatuko dute hamabost kideak, Legebiltzarreko talde guztietako ordezkariak, eta abian izango da hartutako ondorioak Dumak berak onartu edo baztertu arte.

Komunistek eta aliatuek lehendakariari leporatzen diote Sobiet Batasuna zena desegitea, 1993. urtean Legebiltzarra Konstituzioaren aurka desegin eta bonbardatu izana, Txetxeniarrekin gerra piztu izana eta gestio txarragatik herrialdeko ekonomia porrotera eramatea.

Jeltsin lehendakaritza kargutik kentzeko prozesua nahasia da, ordea. Konstituzioak finkatzen du Dumak dituen 450 diputatuetariko bi herenek onartu behar dituztela Jeltsinen aurkako karguak, eta, behin horrek baietza emanda, Federazioko Kontseiluko senadoren bi herenek hitzartu behar dutela. Gorte Gorenak ere babestu egin beharko du kargutik kentzeko prozesua, horrek ziurtatu beharko ditu-eta akusazioak. Auzitegi Konstituzionalak, berriz, prozesuaren legezkotasuna ziurtatu beharko du.

Kargutik kentzeko legeko prozesuak irauten duen bitartean, Jeltsinek ez du ahalmenik Duma desegiteko eta hauteskundeak aurreratzeko deia egiteko.

Grigori Javlinski oposizioako Jabloko alderdi erreformistako buruzagiak esan zuen Jeltsinek dimittitu egin beharko duela laster. «Herrialdeak bizi duen giroa ikusita gero eta ozenagoak dira Jeltsin kargutik kentzeko aho-tsak», esan zuen Diputatuen Ganbaran egin zuen hitzaldian. «Hori gertatzen da ez norbait lehendakariaren aurka ari delako, lehendakaria bere buruaren aurka ari delako baizik», zehaztu zuen.

Lehendakaria kargutik kentzarekin batera beste erabaki bat ere hartu zuen Dumak: ez du erantzungo Kremlinak Mendebaldeari eskatu dizkion kreditu osagarriengatik, baldin eta Gobernuak dirulaguntzak onartzen baditu Legebiltzarren baietzik gabe. Jeltsinek Mendebaldeari eskatu zion 10.000



Boris Jeltsin atzo Kostroma herrian modeloen joan-etorria txalotzen.

IVAN SEKRETAREV / EPA

milioi dolarretik 15.000ra bitarteko dirulaguntza errubloa dagoen zulotik ateratzeko, merkatua egonkortzeko eta inbertsioen ihesa eragozteko.

Kommersant Daily negozio egunkari errusiarrak argitaratu zuen Sergei Kirienko lehen ministroak bilera egin zuela herenegun gauean herrialdeko

hamar finantza korporazio nagusiekin, eta aztertu egin zutela errubloa %35 inguru devaluatzea. Hori hala balitz kolapsatua geratuko litzateke errubloa.

Jeltsinek ez du asmorik hirugarren agintaldira aurkezteko

ERRUSIAKO lehendakariak argi esan du ez duela inolako asmorik berriro hirugarren agintaldi baterako aurkezteko, Konstituzioak horretarako ahalmenik ematen ez diolako. Jeltsinek adierazpen horiek egin zituen atzo Kostroma herrira egin zuen bisitan, Moskutik ipar-ekialdera 330 kilometrorra.

Boris Berezovski

Estatu Independenteen Erkidegoko idazkari exekutiboak herenegun jendaurrean esan ziona aintzat hartu zuen Errusiako lehendakariak. Izan ere, Berezovskik esan zuen lehenbailehen adierazi behar zela Jeltsinek asmorik ez duela agintaldi berri batera aurkezteko. Estatu Independenteen Erkidegoko idazkari exekutiboak

Moskuko Oihartzuna irratia adierazi zion ez direla batere mesedegarriak Jeltsin agintaldi berri batera aurkeztuko den edo ez ahotik aho dabilzan zurrumurrak.

1993. urtean onartu zen Errusiako Konstituzioak argi zehazten du lehendakariak behin besterik ezin duela aukeratua izan, eta Jeltsin bigarren aldiz

aukeratua izan zen lehendakari 1996. urtean egin ziren hauteskundeetan.

Horregatik, Kremliak Auzitegi Konstituzionalera jo du azter dezan Jeltsinek agintaldi bakar bat bete duela. Izan ere, lehendakari aukeratua izan zen lehen aldiari Sobiet Batasuna zeneko Konstituzioa indarrean zegoen. X

UCK talde armatu kosovoarra kontrol politikoaren mepe jarri nahi du Rugovak

■ Gerrillari taldeari arduraz jokatzeko eskatu dio Kosovoko albaniarren buruzagiak

Agentziak / Pristina

IBRAHIM RUGOVA Kosovoko albaniarren buruzagi nagusiak, ez du batere gustuko izan orain arte Kosovoren Askapenerako Armadari (UCK) buruz hitz egitea, eta, are gutxiago, talde armatu hori bere ingurukotzat hartzea. Rugovak behin baino gehiagotan esan izan du berak ez zekiela ezer UCKri buruz, eta noizbait zerbitzu sekretu serbiarrek sortutako taldea direla baieztatu du.

Dena dela, diskurtso hori aldatu egin du: batetik, agerian geratu delako Kosovoko albaniar independentistak direla UCK-ko kideak, eta, bestetik, herriararen artean onarpen zabala lortu duelako talde gerrillariak. Gainera, nazioarteko komunitateak Rugova eta haren kideei eskatu zien nolabait gerazteko UCKren jarduna.

Faktore horiek guztiak aintzat hartuta, Ibrahim Rugovak prentsaurrekoa eman zuen atzo Pristinan, Kosovoko hiri-buruan, UCKri buruz. Talde armatua kontrol politikoaren menpe jarri behar dela nabarmendu zuen, batik bat, Rugovak. «UCK-ko kideak, beren etxeak defenditu nahi dituzten pertsona normalak dira. Ahal dugun guztia egin behar dugu kontrol politikoaren menpe jartzeko», adierazi zuen.

Ilido beretik, UCK-k ardura handiz jokatu behar duela iritzizion Kosovoko albaniarren buruzagiak, «denok izan behar baititugu kontuan nazioarteko akordioak». Hori dela eta, talde armatuko kideei eskatu zien aintzat hartzeko NATOren eta nazioarteko komunitatearen eskaera: borroka armatua bertan beharra uztea. Hain zuzen ere, nazioarteko komunitateak horixe eskatu die Jugoslaviako Gobernuari zein UCKri.

Baina Kosovoko albaniarren buruzagien artean Rugova ez da bakarra Kosovoren Askapenerako Armada kontrolatu nahi duena. Aitzitik, Bujar Bukoshi Kosovoko Gobernu erbesteratuko lehen ministroa eta Rugovaren aretoa, UCK kontrolatu nahian dabil. Gainera, Suitza eta Alemanian bizi diren Kosovoko albaniarrek talde independentisten alde ematen duten dirua Bukoshik kontrolatzen du. Egunotan jakin da Bukoshiren ordezkariak UCKrekin bildu direla autodefentsarako talde zabal eta baketsuagoa osatzeko. X